

BALIO PROPOSAMENA

Zein arazo konpontzen dugu?

Psikovan baliabide publikoen eskasia eta osasun mentalaren arloko arazoak konpontzen ditu, bereziki herri eta landa-eremuetan. Hiri handietan ere baliabideak urria dira, eta haurren kasuan, horrelako zerbitzuetara sartzeko aukera askoz txikiagoa da. Gaur egun, gazteek antsietate, depresio, estres eta burnout bezalako arazoak gero eta gehiago pairatzen dituzte. Haurrek eta nerabeek estigma soziala, etorkizunarekiko beldurra, eta autoestimaren beherakada ere jasaten dituzte, eta sarritan ez dute tratamendurik eskuratzen, bai baliabide ezagatik bai osasun mentalaren inguruko estigmak direla eta. Gazteen artean estresaren, antsietatearen eta depresioaren arazoak areagotu egin dira, eta horrek argi uzten du osasun mentalaren inguruko laguntza eta tratamenduak ezinbestekoak direla.

Zerk bereizten gaitu?

Psikovak bereziki gazteentzako osasun mentalaren arloan espezializatua dago, eta herri eta landa-eremuetan zerbitzu eskusiboak eskaintzen ditu, furgoneta baten bitartez profesionalak eremu horietara gerturatuz. Zehazki, leku publiko eta zentroetan ez dauden baliabide eta laguntza espezializatua eskaintzen dugu, eta horrek gure proiektuak bereizten ditu. Hiru funtsezko berritasun ditu:

Prestazioak: Gure tailerrak ez dira egun bateko saioak, baizik eta prozesu luzeetan oinarritutako programak, ikasturte batzuetan zehar jarraitzen dituztenak. Honek ikasleek eta parte-hartzaileek konfiantza handiagoa lortzen dute, eta ez dira ahaztuta geratzen.

Pertsonalizazioa: Gure zerbitzuak oso pertsonalizatuak dira. Ez da talde orokor batentzat prestatutako saio bat, baizik eta parte-hartzaile bakoitzaren beharrei egokitutako laguntza.

Lana erraztea: Gure proiektuak eskolak eta ikastetxeak laguntzen ditu, osasun mentalaren arloan hezitzen eta gazteek behar dutenean laguntza eskatzeko aukera emanez. Horrela, gazteek ez dute osasun zentrorako joateko beharrik, eta zuzenean ikastetxean jasotzen dute laguntza.

Diseinua: Gure tailerrek estruktura eta jarraipen argia dute. Saioak eta jarduerak beharretara egokitzen dira, eta ez dira etapa bateko prozesu laburretan gelditzen, baizik eta guztiz egokituta dauden proiektuak eskaintzen ditugu.

Marka/Estatusa: Psikovaren markak prestigio eta konfiantza eskaintzen du. Proiektuaren izaera eskusiboak eta indibidualizatuak gazteek osasun mentalaren arloan laguntza jaso dezaten laguntzen du, eta horrek ikastetxeek eta familiaek eskertzen dute.

Prezioa: Psikovak baliabide publikoetan erabiltzen diren prezioak baino eskuragarriagoak diren zerbitzuak eskaintzen ditu, eta hori gazteen eta familien eskura jartzen da.

Arriskuen murrizketa: Gure proiektuek arriskuen murrizketa handia eskaintzen dute, gazteek eskuratzen duten tratamendua pertsonalizatua eta segurtasun handikoa delako.

Eskuragarritasuna: Psikovak herri eta landa-eremuetan eskuragarritasun handia eskaintzen du, hiri handietan ez bezala, bertako gazteek bertako zerbitzuetara erraz sarbidea izateko aukera izan dezaten.

Erabilerraztasunak: Gure proiektuak ikastetxeetako ikasleei erabiltzeko errazak eta intuitiboak diren zerbitzuak eskaintzen dizkie, eta horrek garrantzi handia du, gazteek euren emozioak eta beharrei buruzko laguntza erraz eskuratzeko aukera izan dezaten.

